



[softwarelibreanahidugu.org](http://softwarelibreanahidugu.org)

# EUSKAL ALDERDI POLITIKOAK

## ETA SOFTWARE LIBREA

2009/02/19



## Sarrera

Martxoaren lehenengoan Euskal Autonomia Erkidegoan burutu behar diren hauteskunde autonomikoak ikusgai, **softwarelibreanahidugu.org** plataformako kideek lehendakaritzarako hautagai diren guztien jarrera ikusi nahi izan dugu.

Bost galderez osatutako galdetegi bat prestatu dugu horretarako, eta, bederen EAeko lurralde batean, aurkeztutako alderdi eta asoziazio iragankorrei posta elektronikoko bidez bidali dizkiegu. Dokumentu honek jasotako erantzunak (Aralar, D3M, EA, EB, PSE-EE) aurkezten ditu. Azaldutako materiala gure manifestua (ikus eranskina) sinatu duten milaka pertsonentsat eta software librearen alde dauden euskaldun guztientzat interesgarria izango delakoan gaude.

Talde guztietako birekin (Askatasuna, PFyV) harremanetan jartzea lortu ez genuela esan beharra dago, eta besteek gure proposamena kontuan hartu ez dutela (EAJ-PNV, EKA-PC, PACMA, PH, POSI, PP, PUM+J, UPyD).

Azkenik, erantzunen itzulpenak plataformako kideek burutu ditugula argitu nahi dugu. Tipografia arruntarekin erantzunak jaso bezala agertzen dira, eta letra *etxanez* itzulpenak.



## Hautagaiei bidalitako galderak

Lehendakaritzarako hautagai agurgarria:

Azken hilabeteotan Euskadin software librearen aldeko sinadura bilketa (**softwarelibreanahidugu.org**) burutu duen pertsona talde bat gara. Martxoaren leheneko hauteskundeetarako zure alderdiaren izenean lehendakaritzarako hautagaia zaren heinean, gai honen inguruan duzun iritziak jakinmina sortzen digu.

Sinadura bilketak arrakasta nabarmena izan du (1.500 euskaldun inguruk eta mota guztietako 80 taldek sinatu dute: hezkuntza zentroak, elkarteak, enpresak, etabarrek). Euskaldunentzat Software Libreak duen goranzko giza bermea kontuan izanik, bost galdera hauek lehendakaritzarako hautagai guztiei baldintza berdinetan egitea aproposa iruditu zaigu, guztion ikuspuntua bildu eta sarean zehar hedatzeko xedez, bide batez hauteskunde-kanpaina Interneten zabalduz.

1. Egun bizi dugun krisi ekonomikoaren egoeran, Software Librearen potentzian merkeagoa dela (lizentziak dohakoak dira) eta lekuan-lekuko lana bermatzen duela jakinda, Eusko Jaurlaritzak honen erabilera giza-esparru guztietan sustatzeko esfortzua egin beharko lukeela uste duzu? Eta ados al zaude erabilera hori sustatzeko biderik onena, gure inguruko geroz eta erakunde gehiagok egiten ari diren bezala (Extremadurako Junta, frantziako polizia, gobernu alemaniarra, Bolzano eskualde italiarra, etab.), euskal administrazio ezberdinetan Software Librearen erabilera ohikoa bihurtzea delako iritziarekin?
2. Lehendakaritzarako hautagai gisa, eta tresna libre eta baliokideak (OpenOffice, Firefox, etab.) badaudela kontuan izanik, zentzuzkoa deritzozu euskal gazteak hezteko software pribatiboetara (Microsoft Office, Internet Explorer, etab.) horrenbeste baliabide ekonomiko ez zuzentzearen alde lan egiteari? Laburki zergatia azal zenezake?
3. Ez duzu uste e-administrazioetarako sarrera euskaldun guztientzat baldintza berdinetan behar litzatekeela izan? Hortaz, zein da zuen egitasmoa estandarrak betetzen ez dituzten eta, ondorioz, erabiltzaile bakoitzarentzat diru kopuru jakina balio duen enpresa zehatz baten softwarea erabiliz baino bisitatu ezin daitekeen webguneekin?
4. Martxoaren leheneko hauteskunde autonomikoetan lehendakari hautatua izanez gero, Software Librearen eta formatu irekien erabilera gizartean sustatzeko eta euskal administrazio publikoetan estandar bihurtzeko zein hobekuntza zehatzekin hartuko zenuke konpromisoa?
5. Eskutitzaren hasieran aipatutako administrazio publikoetan Software Librearen erabiltzeko manifestua sinatu duzu? Zergatik?

Milaka euskaldunek irakurriko dituzten galderen erantzunak idazten denbora eman izana oso-osoan eskertzen dizugu. Ahal den heinean, zure erantzunak **otsailaren 13a** baino lehen **info@queremossoftwarelibre.org** helbidera helaraztea zeharo eskertuko genizuke, orduan Internet bidez, giza-sareetan eta komunikabideetan barreiatzeko txostena lantzeko asmoa baitugu. (OHARRA: helbide hau artxibo publikoa duen posta-zerrenda baten ezizena baino ez da, beraz, idatzitakoa zuzenean Interneten eskuragarri geratuko da)

Mila esker eskainitako laguntzagatik eta heltzear dauden hauteskundeetan zuk eta zure alderdiak aurrezarritako helburuak erdiestea opa dizugu.

Agur bero bat.



## Aralar -en erantzunak



Aintzane Ezenarro



### 1. galderari erantzuna:

*Software librea indartzeko arrazoiak ez dute soilik ekonomikoak izan behar, nahiz eta krisi garai hauetan argudio zeharo onargarria eta sendoa izan. Gure ezkerreko ikuspuntutik, lobby-en ekonomia eta pentsamendu bakarreko kontrolekin hausteko jarduera sozial, kultural, ekonomiko eta digitaletako esparru guztietan aukerak bilatu beharra daukagu.*

*Aukeretako bat kultura digitalaren munduan aurkitu dezakegu, software librearen izatea dugula medio. Hori dela eta, eta horregatik soilik, merezi du tresna digital honen alde egitea.*

*Hala ere, aipatutakoari tresna ezberdinen erabilerak administrazioentzat dakarren gastu ekonomikoak osatzen duen behin betiko argudioak gehituz gero, software librearekin batera aurrera egitea ezinbestekoa dela ikusiko dugu.*

*Ikuspuntu ekonomikoan oinarrituta, software librearen sustapen eta onarmenak zeharo lagundu ahal die krisia protagonista den garai hauetan autonomo gisa negozio txikiak edo enpresa txiki/ertainak martxan jarri nahi dituztenei, proiektu eta enpresen bideragarritasunerako gastu informatiko oso garrantzitsua aurreztu bait lezakete.*

*Aralarrek honen alde egiten du arrazoi ideologiko eta baliabide ekonomikoen optimizazioa direla medio, eta hala agertzen da aurrerago aipatuko ditugun programako proposamenetan.*

### 2. galderari erantzuna:

*Aurrekoan komentatu bezala, software librearen aldeko apustua ez da soilik ekonomikoa, baizik eta ideologikoa.*

*Software librearen erabilera eta honen sustatzea elkartasun, eskuzabaltasun eta etekin ekonomiko maximoa lortzeko informazioaren kontrolaren bila dabiltzan lobby-en eta monopolio informatikoen kontrako erresistentziaren baloreetan oinarrituta dago.*

*Horregatik, software librearen hezkuntzan ezartzea oinarrizko helburua dugu, eskuzabaltasunean, elkartasunean eta pentsamendu kritikoan oinarritutako etorkizunerako gizartea indartu nahi izanez gero. Hezkuntza eta software librearekin duen lotura giza*



*kontzientziazioan lehen kate-maila dugu.*

### 3. galderari erantzuna:

*Euskadiko herritar guztiek administrazioekin harremanetan jartzeko eskubide berdinak izan behar dituzten ideiarekin zeharo ados gaude. Bai beharrezko hardwarea izatean oinarritutako eskubideetan, bai software egokia izatearenetan.*

*Egun, instituzio publiko bakoitzarentzat kudeaketa informatikoa gestionatzen duten enpresak egoteari (EJIE, LANTIK...) tamalgarria deritzogu. Lan banaketa mota honek gehiegizko gastua sortzen du eta erakunde hauek benetako "txiringito" bihurtzen ditu, non administrazio kontsilua eta bezeroa subjektu berdina diren.*

*Kudeaketa informatiko eredu hau errotik aldatu beharra dago eta baliabideak irizpide, koordinazio eta herritar guztientzat baldintza berdinetan irekita dauden tresna berberak erabiliz optimizatu behar dira.*

*Proposamena: software librearekin bisitatu eta erabiltzeko aukerarik ez duten webguneek diru-laguntza publikorik eskatzekotan, ez lukete jasoko.*

### 4. galderari erantzuna:

- *Software pribatuko lizentzietan inbertitutako diru portzentaia gutxitzen joatea, software librearen garapena eta ezarpenaren mesedean. Portzentaia zehaztearren, Firefox-ek Europan duena begiratu eta horri %10 gehitu ehunekoia lortzeko. Puntako herrialdeak dauden mailara heltzen lagunduko digun plan bat beharko dugu horretarako.*
- *Web tresnen garapenari dagokionez, web tresnen garapenerako diru-laguntza publikoak jaso ahal izateko, edozein webgune Firefox-ekin bisitatu eta erabiltzea ahalbidetzea beharrezkoa izatea. Horrela ez bada, diru-laguntza ukatu.*
- *Aldaketak etxean hasi: Eusko Jaurlaritza, Osakidetza, Herrizaingo Saila... izapide informatikoak software librea erabiliz burutzeko aukera egotea.*
- *Lehenik eta behin, instituzio publikoetako ordenagailu guztietan software librea diren nabigatzaile eta posta kudeatzaileak instalatzea. OpenOffice instalatu eta erabiltzeko plan bat egitea.*
- *Software librea zer den jakitera emateko sozializazio kanpaina burutzea, non aurkitu daiteke, nondik deskargatu... Laburbilduz, sentsibilizazio, kontzientziazio eta software librearen erabilera kanpaina bat bultzatzea.*
- *Software librea funtsezko tresna dugu Euskara hizkuntza gisa indartzeko, eta baita bere esparru guztietan honen garapena eta jendarteratzea eragiteko. Hori dela eta Aralarretik Software librea eta .eus kanpaina hasiberriaren alde egingo dugu.*

### 5. galderari erantzuna:

*Bai, aurretik aipatutako guztiagatik, baina batez ere tresna libre eta solidario honen giza-baloreetan arreta jartzen duten manifestuaren lehenengo bi puntuak diotenean oinarrituta.*



## Demokrazia Hiru Milioi -ren erantzunak



*Itziar Lopategi*



### 1. galderari erantzuna:

Geure hautes elkartetik software askea bultzatzen dugu arrazoi nagusi batengatik, ideiak libre diren moduan, inoren jabe izan ahal direnez, ideiak eta pentsamenduek sortzen duten, kasu honetan, softwarea ere hedapen librekoa ere izan beharko litzateke. Ideien elkartrukea, baieta era binarioan ere, guztion onurako delako beti.

Euskal Herriaren kasuan nabarmenago ikusten ahal dugu behar hau. Gure hizkuntzaren hiztun kopurua txikia da inguratzen gaituzten estatu handien hizkuntza ofizialekin alderatuta. Eta honek dakar, softwarea sortzen duten enpresa pribatuentzat gure hizkuntzara moldatutako softwarea sortzeari errentagarria ez iriztea. Software askearekin aldez, kode askekoak diren heinean, edozein euskaldunak, edota euskal instituzioek ere, euskaratu dezake euskal komunitate osoak erabil dezan.

Sinistuta gaude afera honetan arreta berezia jarri beharko luke Eusko Jaurlaritzak.

### 2. galderari erantzuna:

Herri edo pertsona baten bizitzaren esparru guztietan bezala, monopolizaturik dauden arloak izatea ez da osasungarria etorkizunean dependentziak sortzen direlako eta ideien elkartruke oparoari bidea ixten zaiolako.

Software askeak duen potentzialitatea, hain zuzen, hauxe da. Softwareen hobekuntzan parte hartu nahi duen edonork har dezakeela parte eta are garrantzitsuagoa dela, norberaren erabilpen zehatzetarako moldatu. Lehen esan bezala, Euskal Herria eta euskal hiztunak, munduaren zati txiki bat garen heinean enpresa handietatik ez zaizkigu gure behar zehatzen erantzunak etorriko.

Software librea, eta orohar bere atzean duen ideien elkartruke askearen filosofia gure herriarentzat oso egokia dela pentsatzen dugu.



### 3. galderari erantzuna:

Administrazioak publikoak diren heinean, guztiontzat eskuragarriak izan behar dira. Inongo bazterketarik gabekoak eta horretarako bitartekoak eskaini behar dira guztiontzat sarbide egokiak eskaintzeko.

Kasu honetan ere, administrazioarekin harremanetan jartzeko edo informazioa jasotzeko internet oso bide erabilia dela kontutan izanik, Instituzioek interneteko erabiltzaile orori sarbide bermatu beharko lioke.

Ezin da aurrebaldintzarik ezarri publikoak diren zerbitzuetan, egun zenbait administrazioetako webguneetan gertatzen ari den bezala.

### 4. galderari erantzuna:

Lehenik eta behin euskal administrazio publikoak adibide izan behar dugula uste dugu. Ezin diogu jendarteari esan software librean erabiltzea bien bitartean administrazioek software jabeak erabiltzen duten bitartean.

Urtero ehunka mila euro xahutzen ditugu bai ikastetxe zein unibertsitateetan, liburategietan eta orohar edozein ordenagailutan software lizentziak ordaintzen. Honek sekulako dependentsia sortzen du erabiltzaileengan eta, batez ere eskolatik hasten badira, software zehatz horiek baino ez ezagutzea.

Era berean milaka euro behar dira birus eta bestelako mehatxuak garbitzen, eta horren ondorioz galtzen den informazioa edo arriskuan dagoena ere handia da. Horrekin bukatzeko modu egokia dira sistema eragile libreak.

Hala ere gure proposamena ez da bakarrik softwarearen inguruan kokatzen. Eusko Jaurlaritzak, kasu honetan, guztion diruarekin ordaintzen dituen hainbat eduki ekoizten ditu (euskalmet, harluxet entziklopedia...adibidez). Era berean bere esku daude ere, administrazio publikoak ahotso duen heinean, bestelako eduki eta ikerketak egiten dituzten lekuak, unibertsitateak kasu. Hauek guztiek ekoiztiko ahalik eta eduki gehien lizentzia librean egon beharko lirakeela uste dugu. Azken finean ez delako bidezkoa guztiok ordaindutako zerbaitek lizentzia pribatua izatea.

Beraz gure proposamenen artean ordenagailu publiko guztiek legegintzaldi baten buruan software librean izatea dago. Aurrezten dugun diruarekin software horiek garatu eta hobetzeko programak ere abiaraziko ditugu, hala nola jendarteak berauek ezagutzeko kanpainak egiteko; eta software hauek zein administrazio publikoek ekoizten dituzten materialak Domeinu Publikoan jarriko genituzke.

### 5. galderari erantzuna:

Bai, gure hautes elkarteak sinatu du, nahiz eta berria denez oraintxe arte egin ez dugun. Uste dugu aldarrikapen hau administrazioei zabaltzeak garrantzi handia duela, bai eta arazoaren kontzientzia hartzea. D3Mk argi du jendearen parte-hartzerik gabe eginiko aldaketek ez dutela etorkizunik.

Hori dela eta administrazioek beraiek hartu beharreko erabakiez gain herriak eskatu beharrekoari garrantzi oso handia ematen diogu.



## Eusko Alkartasuna -ren erantzunak



Unai Ziarreta



### 1. galderari erantzuna:

*Joan den legegintzaldian Eusko Legebiltzarrean intituzioetatik software librearen "industria-sektorea" sustatu behar dela proposatu eta defendatu izan dugu, enpresa talde bat piztu eta sortzeko xedez, gure herrialdea Europa mailan software librearen inguruan erreferentzia izan dadin. "Teknologia-sektorea" enpleguaren indartzaile eta aberastasun sortzaile izan daitekeela sinistuta gaudelako egin dugu hau.*

*Beti defendatu izan dugu euskal instituzioetatik, eta Eusko Jaurlaritzatik zehazki, software librea hartzeko orduan eraginkorragoak izan beharra dugula, bai barne prozesu administratiboetan bai kanpokoetan, ez aurrezte publiko edo software librean pizgarri bezala soilik, baizik eta "neutraltasun" elementu bezala hartuta. Administrazio publikoak edozein herritar bere zerbitzuetara nahi duen softwarea erabiliz sartzeko aukera izan dezan neutraltasuna bermatu behar du.*

### 2. galderari erantzuna:

*Hezkuntza sisteman software librearen erabilera indartu beharra dagoela uste dut, arrazoi ekonomikoez gain, eta batez ere, baloreak sustatzeko instrumentua delako eta ezagutza eta "partekatze" kultura hedatzen laguntzen duelako. Horrez gain, herritarrek, zein software erabili nahi duten aukeratzeko benetako aukera bihurtzen duelako, administrazio publikoaren "neutraltasuna" bermatzen du.*

### 3. galderari erantzuna:

*Hain zuzen ere, administrazio publikoaren "neutraltasuna"-ri buruz ari garenean, pertsona guztiak e-administrazioetara software motaren menpekotasunik gabe sartzeko aukera bermatzeko beharrari ari gara erreferentzia egiten. Horretarako web orrialde guztietan aldaketak bultzatu behar dira, formatu irekiak har ditzaten, estandarrak betez eta pertsona guztiek sartzeko aukera izan dezaten.*





#### 4. galderari erantzuna:

*Nire konpromesua aurreko erantzunetan batzen da eta gure hauteskunde-programako puntu zehatzetan hurrengoei buruz ari garenean:*

- *Banakako oinarrizko aplikazio erabilgarrien erabileraren ikasketa sustatzea, hala nola, testu-prozesadoreak eta kalukulu-orriak, software zehatzaren aurka.*
- *Tresna informatikoen garapenean aukera berdintasuna bermatzea, software librean oinarritutako plataformen erabilera indartuz.*
- *Administrazio Publikoan software librearen erabilera sustatzea.*

#### 5. galderari erantzuna:

*Bai, Administrazio Publikoek software librea sustatzerako orduan konpromesu handiagoa izan behar dutela uste dudalako eta EA-n konpromesu hori bete dadin bultzatzeko prest gaudelako.*



## Ezker Batua Berdeak -en erantzunak



*Javier Madrazo*



### 1. galderari erantzuna:

*Bai, noski. Administrazio Publikotik, enpresetan, etxeetan eta Administrazioan bertan software librearen erabilera sustatzeko ahalegina egin behar da. Ezker Batuan hain daukagu argi hau, gure buruari aplikatzen hasi garela eta alderdiko 7. asanbladan erakundeko softwarea software librerara migratzeko ekimena onartu genuela.*

### 2. galderari erantzuna:

*Beno, erantzuna galdera barruan dago. Software libreko aplikazio askoren kalitatea eta egonkortasuna software pribatiboko aplikazio baliokideen berdina edo hobea da. Ikuspuntu horretatik, ez dauka zentzurik sendiak software pribatiboa erostera behartzea prestazio berdinak eskaintzen dituen software librea eta doakoa dagoenean. Zentzu horretan, gure programako proposamenetako bat ikastetxe publikoetan informatika irakasteko software librea soilik erabiltzea da. Era horretan sendiak ez dira beharrezkoa ez den ordainketarik egitera behartuak egongo.*

### 3. galderari erantzuna:

*Bai, guztiz ados. Hori da Ezker Batuko webgunetan jarraitzen dugun filosofia: Linux, Apache, MySQL eta PHP erabiltzen dute eta sistema eragile desberdinekin eta nabigatzaile libre zein pribatiboeekin frogatzen ditugu. Eskema berori da e-administrazioan egon behar dena, honek ez bait lituzke software librea darabilten erabiltzaileak diskriminatu behar ezta Microsoftena ez diren beste sistema eragileak erabiltzen dituztenak.*



#### 4. galderari erantzuna:

*Ezber Batua Berdeak oso adi dago Euskadin software librearen inguruan mugitzen den guziarekin, kanpaina hau barne. Izan ere, software librea sustatzeko eta zabaltzeko guk egiten ditugun proposamenek zuen errebindikazioak jasotzen dituzte.*

*Martxan jarriko genituzkeen neurrien artean hauek egongo lirateke: Eusko Jaurlaritzako ordenagailuak software librera era progresiboan migratzea, software libreko tresna nagusien dohako ikastaroak eskaintzea (bulegotika, nabigatzaileak, argazki editatzea, etab.) edo software libreko programen euskaraketen alde egitea. Jada existitzen diren tresnen hobekuntza edo tresna berrien garapena ere sustatu behar direla deritzogu. Software pribatiboak urteetako abaintaila dauka software librearekin alderatuz eta tresna libre guztiek ez dituzte pribatiboek eskaintzen dituzten prestazio guztiak. Zulo hau konpontzeko euskal enpresak laguntzea proposatzen dugu kode irekiko programak hobetu ditzaten edo software librean existitzen ez diren programa berriak garatu ditzaten. Era horretan, tresna libreak hobetzen laguntzeaz gain, Euskadiko irudia mundu osoan zabalduko dugu, Euskal Administrazio Publikoak sustatutako programak, euskal enpresek zati batez edo osorik garatutakoak, mundu osotik era librean zabaltzerakoan.*

#### 5. galderari erantzuna:

*Bai, sinatu dut, Administrazio publikoak software librea erabili eta garatu badezake (eta beraz, baliabideak optimizatuz eta komunitatearen hazkundera lagunduz), software pribatiboaren menpe egon beharrik ez duela uste bait dut. Baita software libreak Ezker Batua oso lotuta dagoen baloreak adierazten dituelako: partekatzea, etika, elkartasuna eta lankidetzeta. Adibide bat: gure hauteskude programarako proposamenak jasotzeko, kode irekiarekin egindako webgune bat jarri genuen martxan, moldaketak egin genizkion hizkuntza bitan erabiltzeko eta euskarara itzuli genuen. Handik gutxira, on-line jartzerakoan, gizarte erakunde ezagun batek antzeko zerbait egin nahian zebilela esan zigun, baina arazoak aurkitzen ari zela software originalak eleaniztasunerako prestatua ez zegoelako. Hurrengo egunean aplikazio osoa bidali genien, itzulpenarekin eta guk egindakoaren azalpenekin.*



## Partido Socialista de Euskadi -ren erantzunak



Patxi López



### 1. galderari erantzuna:

*Sozialistak beti egon izan gara software librearen alde. Joan den legislaturan Eusko Legebiltzarrean makina bat proposamen burutu ditugu gai honen inguruan, duen garrantziaz konbentzituruta baikaude. Informazioaren teknologiak zeharo garrantzitsuak dira guretzat eta, etorkizunean aurkeztu diren aukerei behar bezalako etekina atera nahi badiegu, adi egon beharra daukagu eta gure lehiakideen aldean toki egokian jartzen gaituzten ekimenak bultzatu behar ditugu. Software librea eta honen garapenaren alde egitean, oso indartsua den Euskadiko ehun teknologikoaren alde egiten ari garela gogotsu uste dut. Kode irekiko softwareak enpresa txiki eta ertainen, osagai berritzaile sendoena dutenen, garapena indartzen duela ere esan beharra dago era honetan Euskadiko bigarren eraldaketa ekonomikoa bizkortzearen alde lan eginez.*

*PSE-EE (PSOE) alderdian, dudarik gabe, Administrazioa Publikoa neutral mantendu ezin daitekeela eta software librearen alde gogotsu lan egin behar duela uzte dugu. Honek ez du esan nahi momentu zehatz batean eta zerbitzu jakin baterako kode irekiko aukerak ez badaude software propietarioa kontratatu ezin daitekeenik. Hala ere, gure apustua kode irekiko softwarearen aldekoa izango da dudarik gabe.*

*Joan den legislaturan, esaterako, Eusko Legebiltzarreko Mahaian hasi behar den honetan parlamentari bakoitzari software librea duen ordenagailu eramangarri bana emateko proposamena aurkeztu genuen, honela legebiltzarra behar litekeen abangoardia izan dadin. Baina aukerari ezezkoa eman ziguten.*

### 2. galderari erantzuna:

*Aurreko legislaturan, nire Parlamentari Taldeak zentzu horretan ekimen bat bultzatu zuen, gazteak kode irekiko programen erabileran trebatzea, heldu direnean askatasunean aukeratzeko gaitasuna izan dezaten. Hezkuntzan erabiltzen den software guztia kode irekikoa izatearekin zeharo ados gaude, eta batez ere informatika geletan ikasleei tresna hauek erabiltzen irakastearekin. Aurkeztutako jarrera defendatzera eramaten gaituzten arrazoiak ez dira soilik ekonomikoak, nahiz eta baduen garrantzia, baizik eta helduak direnean aukeratzeko gaitasuna indartua duten herritarrak hezteko ahalbidetzen dutenak.*



### 3. galderari erantzuna:

*Estandar irekiekin konpromisoa hartua dugu. Gure gobernaketan, kontratazioek estandar irekiak errespetatu beharko dituzte, Jaurlaritzako orrialdeek erabiltzailearen softwarearen arabeko diskriminaziorik egin ez dezaten. Halaber, nolabaiteko ezintasunak dituzten pertsonentzat azken legislaturan, ONCE fundazioaren eskutik eta Espainiako azken postuetan kokatuz, zartada galanta jaso duten e-administrazioen orrialdeen erabilera hobetuko dugu.*

### 4. galderari erantzuna:

*Galdera honi aurrekoan erantzun diodala uste dut. Baina hala ere, zertxobait gehiago sakontzearen, Eusko Jaurlaritzatik euskal administrazio publiko guztietan, hau da, Eusko Jaurlaritza, Diputazioak eta Udaletxeak estandar ireki berdinekin lan egin dezaten eta orrialde guztiak elkarren artean estekatuta egon daitezen -nahi duzunetik beste edozeinera joateko aukera egoteko- lan egingo dugula esan behar dut. Honela ez da herritarren edonolako diskriminaziorik sorraraziko eta e-administrazioen erabilera guztiontzat erraztuko dugu.*

### 5. galderari erantzuna:

*Ez dut manifesturik sinatu, baina Parlamentari Taldeko eta hautagai den kide batek, Idoia Mendiak, izenpetu duelako ustea dut. Bertan agertzen diren bost puntuetan aipatzen denarekin zeharo ados nago, eta ez nuke sinatu eta laguntzeko arazorik izango.*



## Eranskina – Software librearen aldeko manifestua

Azpian sinatzen dugun talde eta pertsonok, **Software Librea erabili nahi dugula agertzen dugu** (adibidez, GNU/Linux, Firefox, OpenOffice...):

1. Software Libreak, berdintasuna, partehartzea eta solidaritatea sustatzen dituelako eta mundu zuzenago bat sortzen laguntzen gaituen tresna bat delako.
2. Giza garapena, jakintzaren gizartea eta berrikuntza teknologikoa bultzatzen dituelako, Teknologia Berrietara guztion sarrera erraztuz.
3. Jakintzaren elkarbanatzean oinarritzen delako, ekonomikoki errentagarriagoa delako (lizentziak doakoak dira) eta lekuko enplegua sustatzen duelako.
4. Librea delako (edozeinek erabili eta hobetu dezake) eta estandar publikoak eta formatu irekiak erabiltzen dituelako.
5. Independentzia teknologikoa ahalbitzen duelako eta, software pribatuak ez bezala, edozein enpresak hartu ditzakeen erabakietara lotuta egotea saihesten duelako (adibidez, Microsoft).

Gu zti honengatik, ondokoa **eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzari eta beste Euskal Administrazio Publikoei**:

1. Pertsonok Administrazioarekin dituzten harreman guztietan, Software Librea era aktiboan bultzatzea eta sustatzea.
2. Software Librearen erabilera erakunde publiko guztietan eta gizartearen arlo guztietan ezartzea.
3. Guztion zergekin hornitutako aurrekontu publikoa, gizartearen onerako, Software Librearen garapenean inbertitzea.
4. Software Librearen esanahia gizartean zabaltzea eta bere abantaila eta onura anitzak hedatzea.
5. Jende guztia programa libreen erabileran hezitzea, bereziki eskola heziketan.
6. Lekuko enplegua eta independentzia teknologikoa bultzatzea, Software Librearen garapenean erabiltzaile komunitatearekin eta lekuko enpresekin aktiboki lan eginez.
7. Teknologia Berriekin erlazioa duten aurrekontuen esleipenen inguruan eta gai hauei buruz egindako ekintzei buruz era garden eta aktiboan informatzea.